


# HIJKUNTZAREN ERABI- LERA EZ SEXISTARAKO JARRAIBIDEAK



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**  
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua  
Departamento de Deportes y Acción Exterior

Giza Eskubideak Derechos Humanos



Lankidetzeta eta Berdintasuna Cooperación e Igualdad

## AURKIBIDEA:

- **Kontzeptuzko eta legezko esparrua** (2 orr.).
- **Hizkuntzaren erabilera ez egokieran zergatiak:** sexismoa eta androzentrismoa (3 orr.).
- **Arau orokorrak:**
  - Inbertsioaren araua (5 orr.).
  - Genero kutsadura saihestu (6 orr.).
  - Maskulino orokortzaile faltsua (6 orr.).
  - Beste jarraibide batzuk (7 orr.).
- **Administrazio hizkuntza ez sexistaren erabilera:**
  - Dokumentu itxiak. Dokumentu irekiak (9 orr.).
  - Ian eskaintzak. Institutio kanpainak (10 orr.).
- **Hizkuntzaren erabilera sexista eta jarraibideak:**
  - Gizon protagonistak eta menpeko emakumeak (11 orr.).
  - Gizon eta emakumeekiko trataera ezberdinak (12 orr.).
  - Gizon eta emakumeekiko ezaugarri eta balorapen ezberdinak (13 orr.).
  - Femenoaren erabilera peioratiboa edo gutxietsia (14 orr.).
- **Laburpena** (15 orr.).
- **Ondorioak** (16 orr.).

## KONTZEPTUZKO ETA LEGEZKO ESPARRUA

### Errealitatea islatu eta sortu.

Hizkuntza komunikazio sistema bat da eta honen bitartez ideiak, pentsamenduak, sentimenduak eta informazioa adierazten dugu. Tokian tokiko errealitate soziokulturala irudikatzen dugu hizkuntzaren bidez. Gizartea aldatzen doan heinean, hizkuntza ere aldatu egiten da. Era berean, hizkuntzan aldaketak egiteak errealitateaz dugun kontzeptzioan eragin dezake, eta ondorioz, errealitatea bera aldatu.

### Komunikazioa eta pentsamendua, identitate kolektiboa eta indibiduala.

Hizkuntza bat ikastea sinbolizatzen ikastea da, elkar komunikatzeko aukera ematen digu, eta horrez gain, ezagupenak, jarrerak, baloreak, aurreiri-tziak... gureganatzen ditugu, pertsona bezala osatzen eta egiten duguna antolatu eta interpretatzen laguntzen digutenak. Modu honetan, identitate indibiduala nahiz kolektiboa eratzen da.

### Errealitatean aldaketak, hizkuntzaren erabileran aldaketak. Eta alderantziz.

Hizkuntzak errealitatea islatuz gain eraiki egiten du. Zentzu honetan, gure gizartean ematen diren sexuen arteko desberdintasun harremanak hizkuntzaren erabileran islatzen dira. Era berean, egiten dugun erabilerak harreman mota hauek aldatzen lagunduko du. Hizkuntzak moldatzeko duen gaitasuna dela-eta, sartzan diren aldaketak estilo, zuzentasuna eta ekonomia galdu gabe egitea ahalbidetzen digu. Emakumeak izendatu eta ikusarazteak orain arte baino mezu zehatzagoak egitea suposatzen du, errealitate justuagoa eta berdinzaleagoa islatuz.

## **Hizkuntza politikak, hauen funtzioa eta garrantzia.**

Emakumeek historikoki jasan duten diskriminazioa gainditzea izan da Mendebaldeko gizarteetan politika publikoak garatzearen helburua. Bizitzaren arlo guztietan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bul-tzatzeko, esparru honetan ere gomendioak eta arauak garatu dira.

**Nazioarteko gomendioetan** oinarriturik (**UNESCO, 1998 eta 1989**), diskriminatzailea ez den hizkuntzaren erabilerarako estrategiak martxan jar-tzea eskatzen zaie gobernuei. Honela Europar Batasunak **1990ko Gomendio europearra** onartu zuen, administrazio testuei berariazko aipamena egiten diona. Gomendio hau **1987ko Emakumeentzako Aukera Berdinetarako Lehenengo Planean** eta ondorengo araudietan txertatu zen estatu espainiarrean.

Gure testuinguruan, 1991 urtetik aurrera, Emakumeentzako ekintza Positiboko Lehen Planek, berariazko gomendioak txertatzen dituzte.

Gaur egun, **2005eko otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta 2006ko irailean onartutako IV. Planak** EAEko berdintasun politiken erreferentzi-markoa da. Marko honetan jarri da martxan **Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Plana**, 2008-2011 aldirako berdintasun kontuetan jarduteko eremua. Bertan, hizkuntza ez sexista erabileraren berariazko neurriak, noski, jasotzen dituena.

## **HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ EGOKIAREN ZERGATIAK**

### **Sexismoa.**

Sexismoa emakume eta gizonen balio, gaitasun eta jarduera ezberdinak egokitzea da, bakarrik duten sexuaren arabera. Baina oinarrian, eta gehienetan, sexu femeninoarekiko jarrera diskriminatzailea da: emakumeak diren edo egiten dutena gutxietsi eta mespretxatzen da, eta aldiz, gizonak diren edo egiten dutena goresen eta balioesten da. Errealitatearen ikuspegi sexista badugu, hau izendatzeko erabiliko dugun hizkuntza ere halakoa izango da.

**Horiek emakumeen gauzak dira!  
Mari-matraka/mari-zikin... hutsa zara!  
Txakurrari hezurra eta emazteari gezurra.**

### **Androzentrismoa.**

Androzentrismoa sexuaren araberako errealitatearen ikuspegi partziala da eta gizonak gauza guztien ardatz eta neurria kontsideratzera garamatza ("gizona"="unibertsal"). Honela, gizonak erreferentzi gunea diren bitartean, emakumeak gizonen menpekoak dira. Errealitatea ikusi eta irudikatzen duen honek egiten dugun hizkuntzaren erabileran eragiten du eta horregatik lotzen da, zuzen-zuzenean, hizkuntzaren sexismoarekin.

**Gipuzkoar askok eusten diote txikiteoaren ohiturari.  
Urkizu jauna bere emazte eta semearekin joan zen erakusketara.  
Diputatuen emazteentzako ekimen kulturalak antolatuko dira.**



## ALDAKETARAKO GAKOAK

Arazoa ez da mintzaira ezta hizkuntza ere, egiten dugun erabilera baizik. Ondorioz, hizkuntzaren erabilera sexista egiten dugu gizarte sexista eta androzentriko batean bizi garelako. Hortaz, sexismoaren arazoetatik salbuetsita dagoen hizkuntzarik ez dago, ezta mintzaira motarik ere (Adb. administrazio hizkuntza).

"Diputatu", "dekano", "arkitekto", "injeniarri", "kale-garbitzaile", etab. bezalako izenak emakumeekin lotzea arrotza egiten zaigu, orain dela gutxi arte oso emakume gutxi edo bakar bat ere ez delako kargu edo lanbide hauetan aritu (eremu eta jarduera hauetatik baztertu zaielako). Aipatu ditugun horietan (eta bestelako alor gehiagotan) geroz eta emakume gehiago ikusten ditugun heinean, egiten dugun asoziazioa aldatu egingo da, emakumeak nahiz gizonak modu berean kontuan hartuko ditugularik. Hizkuntzaren sexismoa ez dago hizkuntzaren baitan, gure buruetan baizik. Oztupoak ideologikoak dira, beraz.

**Ez da lan egiten dugun errealtatearen kontua (errealitatea sexista edo ez-sexista izan daiteke), horixe islatzeko moduaren kontua baizik.**

Egoera eta errealtate sexistak daude, baina baita ez direnak ere. Eta ez diren horiek hizkuntza sexistaz deskribatu edo adierazten baditugu, gertatzen ari denaren irudi ezberdina emango dugu, estereotipo eta ikuskera sexistak indartuz.

Honela, antzeko kargua eta baldintza berdinetan parte hartzen duten gizon eta emakumeen bilera bat errealtate ez sexista bat izan daiteke, baina hau deskribatzerakoan edo egindako interbentzioei buruz hitzegitean ez baditugu emakumeak aipatzen, edo gizonak edo hauen interbentzioak lehenesten badira... berriro ere hizkuntzaren erabilera sexista egingo genuke.

Gida honetan joera horietaz jabetu eta saihesteko jarraibide eta adibideak proposatzen dira.



## INBERTSIOAREN ARAUA

### ● INBERTSIOAREN ARAUA

Euskarak ez du genero gramatikalik, baina halere, genero bereizketa edo erabilera sexista egiten da. Bestalde, gazteleraren eragin handiaren ondorioz, batez ere **bi erabilera desegoki** dira aipatzekoak: kalkoetan eta maileguetan gertatzen dena, hau da, **gizonak izendatzeko formak orokortzea** egoera batzuetan (semeak, erregeak, boluntarioak, anaiak, jaunak...); eta **izen neutroak sexu batekin identifikatzea** (esaterako: dekanoa, futbolaria... gizonekin, eta erizaina, garbitzailea... emakumeekin), ondorioz, maiz, jauzi semantikoa eginten dugularik (ikus abuztua).

Inbertsioaren araua oso erabilgarria da enuntziatu bat diskriminatzailea den edo ez jabetzeko. Baliabide ona da hizkuntzaren erabilera sexistak zuzentzeko eta hausnartzeko. Gizonekin identifikatzen ditugun hitzak emakumeekin identifikatzen ditugunengatik aldatzea litzateke, eta alderantziz. Hau da, gizonak emakumeen egoeran jarri eta alderantziz, eta esaldia aldaketa horren argira irakurri edo entzun. Adibidez:

**Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara...**

Inbertsioa: **Guztiok gara euskaldun, guztiok ahizpak gara...**

**Suediako erregeak etorriko dira Aldundira.**

Inbertsioa: **Suediako erreginak etorriko dira Aldundira.**

**Festan, gonbidatuak eta beren emazteak...**

Inbertsioa: **Festan, gonbidatuak eta beren senarrak...**

**Gipuzkoarrak nomadak ziren, beren tresna eta emakumeekin alde batetik bestera zihoazen.**

Inbertsioa: **Gipuzkoarrak nomadak ziren, beren tresna eta gizonekin alde batetik bestera zihoazen.**



### ● GENERO KUTSADURA SAIHESTU

Androzentrismoa eta sexismoaren ondorioz, izen neutroak genero bakar batekin identifikatzen dira. Honela, karguak, lanbide eta egoerak sexu bati edo beste bati egokitzen zaizkio. Sendagilea, dekanoa, futbolaria, arkitektoa, nagusia... oro har gizonekin lotzen diren bitartean, garbitzailea, ileapaintzailea, idazkaria, zerbitzaria... emakumeekin lotzen dira. Beraz, hauek erabiltzerakoan kontuan izan behar dugu emakume zein gizonentzat izan daitezkeela, edo gizon zein emakumez aritu gaitzkeela.

### ● MASKULINO OROKORTZAILEA SAIHESTU

Gaztelaniaren eraginez, euskaraz ere emakumeak eta gizonak osatutako taldeak izendatzeko batzutan maskulino plurala erabiltzen da, edo gizonak erreferenteak direnean. Hau da gaztelerazko "maskulino orokortzaile faltsua" deitzen dena, emakumeak baztertu eta ikusezinak egiten dituen. Ez da egia maskulino honek emakumeak ere barneratzen dituenik. Askotan maskulinoa erabiltzen dugu sinbolikoki gizonengan pentsatzen ari garelako, eta ez gizon eta emakumeengan.

## MASKULINO OROKORTZAILE FALTSUA (I)

### ● 1. "Gizon" izenaren erabilera.

Askotan "**gizon**" izena emakumeak eta gizonak izendatzeko erabiltzen da, hau da, generiko gisa. Horrela egitean, emakumeak gutxiesten ditugu, ikusezin bihurtu, edota anbiguotasuna azaldu. Beraz, hasu hauetan "**gizona**" **espezifiko moduan erabiltzea** proposatzen da, bakarrik gizona koei dagokienean. Berdin "gizaseme" eta "gizonezko" izenekin.

Gizonaren ohiturak.

Emakume eta gizonen/Pertsonen ohiturak.

Gizonaren garapen psikologikoa.

Gizon-emakumeen garapen psikologikoa.

### ● 2. "Gizaki" eta "giza" izenen erabilera.

Aldiz, "gizaki" eta "giza" aurrizkiak osatutako izenek ez dute "gizon" hitzak duen konnotaziorik, eta beraz, bietarako erabil daitezke.

Gizarte, giza taldea, giza eskubideak, gizakien bizimodua...

## MASKULINO OROKORTZAILE FALTSUA (II)

### ● 3. Izena+gizon hitz elkartuetan.

Ez da "-gizon" atzizkia generiko gisa erabili behar, gizonak bakarrik izendatzen dituelako.

**Elizgizon, legegizon, itsasgizon, plazagizon, negozio-gizon, enpresa-gizon...**

Kasu hauetan izen berriak sortu beharko ditugu, "-ari", "-gile" edo "-le" atzizkiak edo "langile" hitza erabiliz.

**Legelari, negoziogile, itsas-langile, enpresari...**

### ● 4. Bikote-izenak.

Euskarazko bikote-izenak, kalkoen eraginez galdu egiten dira. Kasu hauetan, euskarak berezkoa duen joerari eutsi behar zaio.

**Semeak, jaunak, erregeak...**

**Seme-alabak, jaun-andreak, andre-gizonak, errege-erreginak...**

## BESTE JARRAIBIDE BATZUK

### ● 1. "Jauna" izenaren nagusitasuna.

Androzentrismoak eraginda, askotan "jauna" izena erabiltzen da ere mezua zeini zuzentzen zaion jakin gabe. Horrela idazki askoren goiburuetan "zuzendari/alkate/sailburu... jauna" erabiltzen dugu, kargu horiek emakumeek maiz betetzen dituzten arren. Agiri administratiboetan, euskarak duen jaun-andre bokatiboa edo ezer ez erabiltzea proposatzen da.

Zuzendari jaun-andrea:...

Zuzendaria:...

B  
E  
R  
D  
I  
N  
T  
A  
S  
U  
N  
A



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**  
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua  
Departamento de Deportes y Acción Exterior

**Giza Eskubideak Derechos Humanos**  
**Lankidetzeta eta Berdintasuna Cooperación e Igualdad**

### ● 2. Hitanoaren erabilera.

Hitanoa aditz formetan sexu-marka adierazten duen tratamendu bat da. Lagunarterako hizkera da batez ere, baina badu zerikusia hurbiltasunarekin, etxeko-tasanarekin eta adiskidetasunarekin ere. Mezuaren hartzailea edo hartzaile taldea gizonezkoak edo emakumezkoak direnean, aditzak marka ezberdina eramango du (-K edo -A gizonezkoentzat -toka-, eta -N edo -NA emakumezkoentzat -noka-). Hartzaileak talde mistoak direnean ordea, desegokia da atzizki edo marka maskulinoak erabiltzea. Zuka erabili daiteke edo inperatiboa. Horregatik administrazioan, publiko zabal bati zuzentzean nekez erabiliko da tratamendu hau. Dena den, askotan hitanoaren erabi-lera desegokia egin izan da, herritar guztiei zuzendutako mezuetan toka erabiliz.

**Azterketa egin ezak. Orain froga egingo diagu.**  
**Azterketa egin (ezazue). Orain froga egingo dugu.**

### ● 3. "-sa" atzizkia.

Zubereraz soilik erabiltzen den atzizkia dela esan daiteke. Atzizki hau daramaten beste hitz asko berriak edo maileguak dira (**alkatesa, aktores...**). Euskara batuan honen erabilpena mugatu behar da, izen eta adjektiboetan genero gramatikalik ez izatean horren beharrik ez dagoelako (**alkatea, aktorea/antzezlea...**). Testuinguruak sexua argituko du. Eta sexua zehaztu nahi izanez gero, izen arruntetara joko da, emakumezkoen zein gizonezkoen tratamendu bera ematen (askotan emakumeekin egiten da soilik -emakume bertsolaria-): **alkate jauna, alkate andrea, neska dantzaria, mutil dantzaria...**

### ● PREMIAZKOAK EZ DIREN ESTRATEGIAK

Gazteleraz maskulino orokortzailea saihesteko maiz "persona" eta "personas" erabiltzen direnez, maiz, euskaraz ere bai, baina ez dira beharrezkoak. Era berean, izen eta adjektiboetan generoa markatzen da batzutan, behar ez denean.

**Beka jaso duten pertsonak.** ("pertsonak" ez da beharrezkoa)  
**Bekadunak, beka jaso dutenak, beka jasotzaileak...**  
**Oso teknikari majo/majoa da, oso teknikari maja da.**  
**Oso teknikari jatorra da.**



## ADMINISTRAZIO HIZKUNTZA (I)

### ● 1. Dokumentu itxiak.

Hartzailea edo hartzaileak ezagunak direnean edo testuak aipatzen dituen pertsonak ezagunak direnean erabiltzen dira dokumentu mota hauek.

Goiburuetan “jauna” hitza soilik erabiliko da gizonezkoei zuzentzean. Emakumezkoentzat “andre”, “andere”, “emakume”... erabiliko da.

Izen-abizenak jartzerakoan, tratamendu berdina erabiliko da emakume nahiz gizonentzat arlo guztietan. Izan ere, gizona denean bakarrik abizena jarri ohi da, eta emakumea denean, izena eta abizena. **Guztiekin izena eta abizena** erabiltzea da egokiena.

“-sa” atzizkia ez erabiltzea gomendatzen da.

Zuzendari anderea/Emakume agurgarria/Irantzu Agirre zuzendaria.

Bilerara Goikoetxea lehendakaria eta Irantzu Agirre bozeramailea joango dira.

Bilerara Jon Goikoetxea lehendakaria eta Irantzu Agirre bozeramailea joango dira.

Sinatua: Mainer Urrutia alkatesa.

Sinatua: Mainer Urrutia alkatea.

### ● 2. Dokumentu irekiak.

Hartzailea edo hartzaileak ezezagunak direnean edo administrazio prozesuan parte hartuko dutenak ezezagunak direnean erabiltzen dira dokumentu irekiak. Euskaraz izenek genero gramatikalik ez dute baina genero kutsaduraren ondorioz, sexu bateko edo bestekoekin lotzen ditugu. Beraz, kontu izan behar dugu asoziazio hauek egitean, pentsatu nahiz idazterakoan.

**Behar denean, bikote-izenak erabiliko dira.**

**Hitanoa eta -"sa" atzizkia ez erabiltzea gomendatzen da.**

Eskatzailea

Zuzendaria/Zuzendaritza

Seme-alaben kopurua/Anai-arreben kopurua

Jaun/Andere agurgarria

Alkate eta alkatesak → Alkateak



### ● 3.Lan eskaintzak, lanpostuen zerrenda, lehiaketak, oposaketak, bekak etab.

Lan arloa da emakume eta gizonen arteko desberdintasun gehien topa dezakegun arloetako bat. Hori dela eta, desberdintasunean oinarritutako asoziazioak kontziente egitea izango litzateke. Horretarako, zenbait kasutan (nahiz eta euskarak behar ez duen), **sexuak zehaztea komenigarria** izan daiteke.

**Suhiltzaile lanposturako oposaketen deialdia ireki da.**

(euskararen aldetik suhiltzaile horiek gizon eta emakumeak izan daitezke, baina lan

horretan soilik gizonak ikusten ohituta gaudenez, euskaldun gehienok soilik gizonak

irudikatzen ditugu. Horregatik, antzeko kasuetan, esplizitoki sexu biak aipatzea berdintasunaren aldeko erabilera egokia izan daiteke )

**Suhiltzaile lanposturako oposaketen deialdia ireki da, gizon eta emakumeentzat.**

**Emakume eta gizon erizainak kontratatuko dira.**

**Hirigintza teknikari lanpostuak beteko dira, gizon nahiz emakumeekin.**

### ● 4.Instituzio-jardueren informazio eta hedatze kanpainak.

Emakume eta gizonak zalantzarik gabe islatuko dira, bi sexuak zehaztuz.

Kanpainaren edukia formakuntza eta lanari buruzkoa bada, **emakumeak eta gizonak espresuki aipatuko dira.**

Bestalde, hitanoa erabiliz gero (gazteriarri zuzendutako mezuetan, adibidez) **noka eta toka** erabili beharko dira.

**Dirulaguntzak gipuzkoar nekazarientzat.**

(goiko adibideetan bezala, ohiko irudia aldatzeko eta berdintasunaren aldeko hizkuntzaren erabilera egiteko, batzuetan sexu biak aipatzea egokia izan daiteke)

**Dirulaguntzak gipuzkoar nekazari emakume eta gizonentzat.**

**Pilota ikastaroan 8-12 urte bitarteko neska-mutilek eman dezakete izena.**

**Aizan! Aizak! Etor hadi gurekin auzolandegira!**



## ERABILERA SEXISTAK ETA KONPONBIDEAK (I)

Gure gizartean dagoen androzentrismoa eta sexuen arteko hierarkiak direla-eta, gizon eta emakumeentzako trataera, balore eta kalitate ezberdinak egokitu eta barnera-tzea ekarri du, **emakumeak menpekotasun, gutxiagotasun eta ikusezintasun egoeran kokatu dituen, gizonekin alderatuta**. Zentzu honetan, adierazpen sexistak hurrengo suposizioetan zuzendu edo saihestu beharko ditugu:

### ● 1. Jauzi semantikoa.

Jauzi semantikoa hizkuntzaren fenomeno bat da, hitz orokortzaileen erabilerarekin zerikusia duena. Kontestu berdinean, lehenengo zatian hitzak emakumeak eta gizonak izendatzen dituela dirudi, baina bigarren zatian, soilik gizonetaz ari dela konturatzeko gara.

**Ordezkariek inauguraziora joango dira. Beren emazteekin joan ahal izango dute.**

Ordezkariek inauguraziora joango dira. Bikotekideekin joan ahal izango dute.

**Ikasleen ohiturak aztertu dira: ordutegiak, kirola, neskekin harremanak...**

Ikasleen ohiturak aztertu dira: ...kirola, neska eta mutilen arteko harremanak...

Mutilen ohiturak aztertu dira: ordutegiak, kirola, neskekin harremanak...

### ● 2. Gizona subjektu aktibo moduan aurkeztu.

Pentsamendu androzentrikoaren eraginez, gizona azaltzen da erreferentzi subjektu modura, beti garrantzitsuagoak diren paper, balore eta gaitasunak egokitzen zaizkierarik, prestigio eta aitoren handiagokoak.

**Greziarrek bozka eskubidea zuten.** (emakumeek ez zutenean)

Antzinako Grezian gizonak bozka eskubidea zuten.

### ● 3. Emakumeak gizonen menpeko edo dependiente moduan aurkeztu.

Gizonak ekintza guztien erdigunea kontsideratuak diren bitartean, emakumeak haien menpekoak kontsideratzen dira, eta zenbait kasutan, haien ondasun edo objektu bezala. Gutxietsiak dauden paper eta gaitasunak egokitzen zaizkie, sozialki balortuak ez direnak. Horrela, ezikusiak eta baztertuak izaten direlarik.

**Martinez jaunaren anderea bere senarraren diskurtsoa adi-adi entzun zuen.**

Leire Manterolak idazkari nagusiaren diskurtsoa adi-adi entzun zuen.



### • 4. Sexuaren araberako trataera ezberdinak.

**Andre edo Andere/Andereño** izenak emakumeen egoera zibila adierazteko erabili izan dira, baina aldiz, **gizon edo jauna** izenak egoera zibiletik aparte erabiltzen dira.

**Jon Ibargarai jauna eta Enara Agirre andereñoa.**

**Jon Ibargarai jauna eta Enara Agirre andrea/anderea.**

Kontestuaren arabera, zenbait kasutan "-(r)en emaztea", "-(r)en andrea" eta "-ren alarguna" erabiltzeak, gizonen aurrean dependentzi edo pertenezki harremanetan kokatzen ditu emakumeak eta hauen indibidualitatea izkututzen du.

**Gutuna Urrutia jaunaren emaztearentzat da.**

**Gutuna Edurne Uriarentzat da.**

**Lurrak Ibargarai alargunaren izenean daude.**

**Lurrak Idoia Toledoren izenean daude, Jon Ibargarairen alarguna.**

Izen-abizenak jartzerakoan tratamendu berdina erabiliko da arlo guztietan. Izan ere, maiz gizona denean abizena bakarrik jartzen da, eta emakumea denean, izena eta abizena edo izena bakarrik. Beraz, guztiekin izena eta abizena erabiltzea da egokiena.

**(ikus ekaina)**

**Saihestu behar da emakumeak aparteko kolektibo edo gutxiengo bat bezala aipatzea.** Emakumeak gizartearen erdia baino gehiago dira, eta kolektibo eta talde ezberdinetan daude. Modu berean, emakumeak ere anitzak dira (ez dago emakume izateko eredu bakar bat), eta **hobe da pluralean aipatzea -emakumeak-**, singularraren baino askoz hobe -emakumea- azaltzen baitira terminoak izan ditzakeen fiabardura guztiak.

**Dirulaguntzak jubilatu, etorkin, langabetu, gazte eta emakumeentzat izango dira.**

**Dirulaguntzak jubilatu, etorkin, langabetu eta gazteentzat izango dira.**

**"Emakume(ak)"** izena solilik erabiliko da espreski edo helburu jakin batez hau agertzea nahi dugunean. Bestela, kasu gehienetan euskaraz ez da beharrezkoa sexua zehaztea, eta zehaztu nahi izanez gero, bi sexuak zehaztuko dira:

**Bertsolari askok parte hartu zuten, emakumeak ere bai.**

**Emakume eta gizon bertsolari askok parte hartu zuten.**

## ERABILERA SEXISTAK ETA KONPONBIDEAK (III)

### ● 5. Sexuaren araberako ezaugarri ezberdinak.

**Emakumeak estetika, itxura fisikoa, arlo familiarra edo tradizionalki feminitzat hartu diren lanbideekin** loturiko ezaugarriak nabarmentzen agertzen dira, eta **ekintza eta paper pasiboetan**. **Gizonak** aldiz, **gai intelektual edo lan egoerarekin** zerikusia duten kontuetan agertzen dira, orokorrean **paper aktiboetan**. Emakumeen inguruan zerbait esan aurretik, komenigarria litzateke pentsatzea gizonak balira gauza bera esango genukeen.

Maria Sharapova tenis-jokalaririk eder eta sexyenetako bat da, oso ona.

Maria Sharapova mundu mailako tenis-jokalaririk onenetako bat da.

Diputatuak inauguratu zuen ekitaldia, bi legebiltzarkide emakumeekin.

Diputatuak eta bi legebiltzarkidek inauguratu zuten ekitaldia.

Jendea behar da, zainketa eta afektibitate arloan emakumeak bezain trebeak.

Profesionalak behar dira zainketa eta giza-harremanen arloan.

Maite Lekue zuzendaria beti eder eta dotore jantzita doa agerraldietara.

Maite Lekue zuzendaria doan agerraldietan...

### ● 6. Sexuaren araberako balorapen ezberdinak.

Androzentrismoak eta sexismoak eragindako beste kasu bat da. Emakumeak diren edo egiten dutenari balioa kentzen zaio, soilik emakumeak izateagatik. Objektu edo bigarren mailako zerbait bezala hartu dira emakumeak, tradizionalki. Eta horregatik gutxietsi egin zaie emakumeei, gutxietsi egin da gizarteari egin dizkioten ekarpen guztiak. Horregatik garrantzitsua da kontzeptzio hauek aldatzea eta **emakumeak behar bezala baloratzea, pertsonaren arabera dagozkien gaitasun, trebetasun edo bestelako ezaugarriengatik aintzat hartuz, eta ez sexuaren arabera**. Adibidez, arlo zehatz bateko profesionalen bilera batean gizon bat aipatzeko bere profesionaltasuna azaltzen badugu, emakume bat aipatzerakoan balore berdina edo antzekoa esango dugu.

Eider Moral, ekonomilari ezaguna, departamentuko zuzendaria da.

Maidar Zabala diputatu eta legelari bikainak jardunaldiak zuzenduko ditu.



### ● 7. Femeninoaren erabilera estereotipatua, peioratibo edo gutxietsia.

Emakumeekiko mespretxua hitz, esaera, espresio, adiera, definizio, etabarretan azaltzen da, kutsu edo fiabardura ezberdinekin gizonak edo emakumeei egokitzen bazaizkie. Badaude ere emakumeei zuzendutako hitz edo esaldi batzuk peioratiboak direnak, eta gizonentzat existitu edota erabiltzen ez direnak.

**Gizalege (begirunea)/Emalege (hilekoa).**

**Gizabakar (norbanakoa)/Emabakar (monogamoa).**

**Gizatxar (gaiztoa)/Ematxar (prostituta).**

**Gizontasun/Ematasun.**

(itxurazko bikoteak, esanahi ezberdinarekin gizon eta emakumeentzat).

**Andraketa, emagaldua, emakoitasun, andereño, emaro...**

(erro femeninotik sortutako hitzak eta beste sexuarentzat balioikiderik ez dutenak)

**Gizabide, gizalan, anaitasuna, anaiarte...**

(erro maskulinotik sortutako hitzak eta beste sexuarentzat balioikiderik ez dutenak)

**Mamala, txatxala, urdanga...**

(erdeinuzko hitzak emakumezkoekin bakarrik erabiltzen direnak)

**"Ez duzue potrorrik hori egiteko"**

**"Horiek emakumeen gauzak dira"**

**"Gizon on bat behar da horretarako"**

**"Txakurrari hezurra eta emazteari gezurra"**

**"Taldea hiru gizon eta bi neskek osatzen zuten"**

**"Txapelketan Bartzelona eta Athletic-ek jokatuko dute. Emakumeen txapelketan berriz nafatar talde bat egongo da"**

(emakumeak gutxiesten dituztenak)



## LABURPENEA

● **Kontzeptuzko eta legezko esparrua** (2 orr.): hizkuntzak ez du soilik errealtatea islatzen, sortu ere egiten du. Horregatik botere publikoetatik hizkuntzaren erabilera ez sexistak sustatzen da.

● **Hizkuntzaren erabilera ez egokiaren zergatiak: sexismoa eta androzentrismoa** (3 orr.): arazoa ez da hizkuntza, egiten dugun erabilera baizik. Mintzairak gure pentsamenduak islatzen ditu. Errealitatearen ikuspegi sexistak badugu, hau izendatzeko erabiliko dugun hizkuntza ere halakoa izango da.

● **Arau orokorrak:**

- INBERTSIOAREN ARAUA (5 orr.): enuntziatu sexistak antzemateko baliogarria. Egoera aldatzean datza, emakumeak gizonen egoeran jarriz eta alderantziz.

- GENERO KUTSADURA SAIHESTU (6 orr.): ez dira izen neutroak (lanbideak esaterako) sexu bakar batekin identifikatu behar.

- MASKULINO OROKORTZAILEA SAIHESTU (6 orr.): askotan emakumeentzat bazterzaile eta diskriminatzailea da, eta saihestu egin behar da. Ez da "gizon" erabili behar orokortzaile bezala, "gizaki" eta "giza" berriz bai. Ez dira orokortzaileak diren hitzak maskulinoetatik hartu behar. "Jauna" soilik gizonak izendatzeko erabili. Ez erabili "-sa" atzizkia, eta kontuz hitanoa eta premiazkoak ez diren hainbat estrategiek.

● **Administrazio hizkuntzaren erabilera ez sexistak** (9,10 orr.): dokumentu itxietan, hartzailearen sexua ezagutzen dugunez, dagokion tratamendua emango zaio. Dokumentu irekietan, euskararen berezko bikote-izenak erabiliko dira. Lan-eskaintza eta instituzio kanpainetan maiz, berdintasunaren alde egiteko eta irudi estereotipatuak saihesteko, emakume nahiz gizonak esplizitatzea komeni da.

● **Erabilera sexistak eta konponbideak:** emakumeak eta gizonak berdinean ikusarazi, izendatu, baloratu eta tratatu, eta emakumeen inguruan hizkuntzaren erabilera sexistak eta peioratiboak ez erabili.

- GIZONA PROTAGONISTA, EMAKUMEAK MENPEKO (11 orr.): jauzi semantikoa, emakumeak aparteko kolektiboa bezala hartzea, eta gizona subjektu aktibo bakarra balitz bezala erabiltzea alboratu behar dira.

- SEXUAREN ARABERAKO TRATAERA EZBERDINAK (12 orr.): ez dira inoiz halako bereizkeriarik egin behar. Emakume nahiz gizonen era bereko trataera emango zaie beti.

- SEXUAREN ARABERAKO EZAUGARRI ETA BALORAPEN EZBERDINAK (13 orr.): emakumeei buruz edozer gauza esan baino lehen, gizonen buruz gauza bera esaten dugun pentsatu, eta alderantziz, era guztietako asimetriki saihesteko.

- FEMENINOAREN ERABILERA PEIORATIBO ETA GUTXIETSA (14 orr.): halako erabilera guztiak baztertu. Emakumeek ez dute gizonen bano gutxiago balio.



## ONDORIOAK

### **Emakumeak eta gizonak esplizituki barneratu eta ikusarazi.**

Emakumeak eta gizonak esplizitoki barneratu eta ikusarazteak hauek izendatzea suposatzen du, protagonismo maila eta trataera berdina ematea, beren ekarpenak aitortu eta maila berean baloratzea, gizarteko arlo guztietan. Azken finean, sexuen arteko desberdintasunak sortzen dituen ikuspegi androzentrista alboratzea da. Emakumeak ez izendatzeak emakumeak gizartean ikustezen eta baztertuak bilakatzen ditu.

### **Hizkuntzaren erabilera ez sexista egin.**

Hizkuntzak oso moldagarriak dira, eta estilo eta zuzentasuna galdu gabe aldatetak egiteko aukera handiak ematen dituzte. Jarraibide hauekin modu argi eta zehatzean azaldu dezakegu nahi duguna, egoera ondo islatu, modu horretan hizkuntzak bere funtzioa hobeto beteko duelarik.

## ERREFERENTZIAK

- "Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago", Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. Eusko Jaurlaritza (1988).
- "Guía para una comunicación igualitaria" de DFG (2007).
- "Administrazio hizkuntzan euskararen erabilera ez sexistarako gida", Gipuzkoako Batzar Nagusiak (2008).
- "Lenguaje administrativo no sexista" del Instituto Andaluz de la Mujer. Junta de Andalucía.
- "Porque las palabras no se las lleva el viento... Por un uso no sexista de la lengua" del Ayuntamiento de Quart de Poblet.
- "UPV-EHU-n euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida".



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**  
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua  
Departamento de Deportes y Acción Exterior

**Giza Eskubideak Derechos Humanos**



Lankidetzeta eta Berdintasuna Cooperación e Igualdad